

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Banaketa eta komunikazio kanalen atalaren helburua gure enpresak zer egingo duen gure zerbitzua bezeroengana helarazteko jakitea da. Kanal hauen bitartez gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea lortuko dugu, gure balio-proposamena helarazteko.

- Kasu honetan, gure proiektuaren komunikazio-kanal egokiena gure proiektua zabaltzeko eta bezeroengana helarazteko, unibertsitate jakin batekin lan egingo dugunez, unibertsitatean aplikazioaren publizitatea metodo tradizional baten bidez egitea da, gure proiektua iragartzeko kartelak diseinatuko ditugu, kartel horiek unibertsitateko hormetan egongo dira eta eskuorri txikiak banatuko ditugu campusaren inguruan. Horrela, unibertsitarioak "irakasle" gisa inskribatuko dira aplikazioan.

Beste alde batetik, aplikazio honen hartzailengana iristeko, kartel eta eskuorri horiek Euskal Herriko hainbat institututan banatuko ditugu.

- Gure proiektuaren publizitatea egiteko erabiliko dugun beste metodo bat Interneteko iragarkiak dira; aplikazio hau gehien zuzentzen zaion nerabeek gehien erabiltzen dituzten aplikazioetan iragarriko diren kartel digitalak sortuko ditugu. Adibidez, instagramen, gure zerbitzua iragarriko dugu, karteletatik abiatuta, instagrameko istorioak erabiliz. Bestalde, tiktok bidez bideoak sortuko ditugu gure zerbitzua erabiliz eta nola funtzionatzen duen azalduz.

